

UDAL HERRI-BATZARRA

2017ko otsailaren 9an, Zaldibian



ZALDIBIAKO UDALA

Gipuzkoa

GAIORORDENA

- 2017ko aurrekontuak osatzeko irizpideak
- SARRERAK KAPITULUKA
- IRTEERAK KAPITULUKA
- 2017ko lerro nagusiak batzordeka
- Parte hartze prozesuaren emaitzak
- Tarte irekia



AURREKONTUAK OSATZEKO IRIZPIDEAK

- **Herritarren eta herriko taldeen eskaerak** kontuan izan. Batzuek urteroko eskakizunak egin dituzte, beste batzuek berriak
- **Udal Batzorde eta Sailen beharrak** entzun eta kontuan hartu.
- **Udal langilegoaren eskakizunak** entzun eta kontuan hartu.
- **Udalbatza osoaren proposamenak** entzun eta kontuan hartu.
- Zaldibiako Udalak egun eskaintzen dituen **zerbitzuak eta laguntzak mantentzeko konpromisoa** bere egiten du, **baita** ahal den neurrian hauek **hobetzekoa ere**.



SARRERAK KAPITULUKA

Kap.	Deitura	Euroak
I	Zuzenezko zergak	337.800
II	Zeharkako zergak	5.000
III	Tasak eta bestelako sarrerak	314.351,58
IV	Transferentziak arruntak	1.260.871,10
V	Ondare-sarrerak	50
VI	Inbertsio errealak besterenganatzetik	0,00
VII	Kapital-transferentziak	0,00
IX	Finantza Pasiboak	0,00

Guztira

1.918.072,68€



IRTEERAK KAPITULUKA

Kap.	Deitura	Euroak
I	Pertsonal gastuak	693.897,73
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuak	589.410,00
III	Finantza gastuak	0,00
IV	Transferentziak arruntak	275.123,82
VI	Inbertsio errealak	359.641,13
VII	Kapital-transferentziak	0,00
IX	Finantza Pasiboak	0,00

Guztira

1.918.072,68€

INGURUMEN, BASO ETA LEHEN-SEKTOREA

- Herri-bideak: Aizporragako bidearen konponketa 28.375,55€ (19.113,74€ F.A. / 9261.81€ Udalak)
- Goimen: 7.114,64€
- Enirio-Aralar Mankomunitatea: 1.550€
- Tolosako Hiltegia: 808€
- Nekazaritza hornikuntzak: 15.000€
- Herriko baserrietako farolak: 1.500€
- Baserritarrei laguntzak azpiegiturak garatzeko: 3.000€
- Goizane Eraikina: Goizane proiektua eta Transformazio gunearen gaia landu.
- Herri baratzeak: lursailen %60-a erabilita, lanketa burutu erabiltzaile gehiago aurkitu asmoz.
- Txakurren ordenantza landu eta ezarri
- Herri mendiko azpiegituren berritzea landu
- Ingurumen teknikariei kontsultak: 2.500€



ONGIZATE, ANIZTASUN ETA BERDINTASUNA

- Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko 13.500€
- Beharrizan larrietako laguntzak 14.000€
- Adin txikikoen babesgabetasun egoerak detektatu eta esku-hartze programak martxan jarri 8.600€
- Berdintasuna: Berdinsareanen barruan jarraitu, martxok 8 eta azaroaren 25eko ekimenak eta beste: 4.000€
- Aniztasuna: egun egiten diren lanketak indartu eta berriak proposatu: 1.500€
- Euskal Fondoa: 577€
- Elkartasun diru-laguntzak: Sahara, Gizakia Helburu eta Gipuzkoako Elikagaien bankua 1.950€
- Beti Gazte Elkarteari diru-laguntza: 4.000€

ZERBITZUAK

- Ura: ur ordenantza dela eta, langile baten kontratazioa (6 hilabete)
- Kontagailuen berritzearen bigarren fasea. 25.000€
- Estolderia: (gutxiago izango da ziurrenik) 62.000€
- Argiteria: hobekuntza batzuk 4.000€
- Zaldibarrengo markesina 4.000€
- Frontoiko ateak 5.000€
- Herriko aparkalekuen berrikusketa eta moldaketa 3.000€
- Langilegoa: soldatan %2 igoera eta lanpostu antolaketa/balorazio azterketa
- Sasieta 125.574€
- Hondakinen azterketarekin jarraitu
- Ohiko mantentze eta hobekuntza lanak



KULTURA, EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROLA

○ Herriko jai ezberdinak:	49.600€
○ Musika Eskola:	18.000€
○ Kultur eta Kirol Taldeei laguntzak:	19.500€
○ Nazio eraikuntza: Udalbiltza, Iparra-Hegoa eta Gure Esku Dago	5.000€
○ Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea:	6.408€
○ Euskalduntze eta Alfabetatze laguntza:	4.000€
○ Guraso Elkarteari laguntza:	5.800€
○ Goierriko Hitza, Goiberri, Goierri Telebista:	7.585€
○ Bestelako laguntzak ekimen ezberdinei	3.000€
○ Karreaneko beheko gelan kortinak	900€
○ Antzokiko soinu mahai berria	1.100€



PARTE HARTZEA

Diru partida guztira 8.500€

- Parte hartze prozesuaren jarraipena egin
- Auzolana: eredu ezberdinak aztertu eta landu
- Herria ezagutzeko txangoak, hainbat gai lantzeko herriko eragile-sektoreekin
- Udala-herritarrak komunikazio bideak lantzen jarraitu



PARTE HARTZE PROZESUA

Ibilbidea 2014an hasi zen, “Nolako Zaldibia nahi duzu?” prozesu partehartzailea martxan jarri zenean.

Orduan, hainbat faseren ondoren, proiektu batzuk garatzea adostu zen.

Jarraian duzue urtebeteko lanketaren laburpena, 2016an egin dena eta 2017an egin asmo dena.

2017an egin beharrekoak aurrekontuetan ere isladatu dira, inbertsioetarako partidaren zati handiena proiektu horietara zuzenduz.



PARTE HARTZE PROZESUA

2016an EGIN DENA:

1. BARNE LANKETA

- Udaberrian: Foru Aldundiko Partaidetza Sailarekin harremanak, 2014an hasitako prozesua nola bideratu lantzeko. Oinarrizkoa: udaleko bi alderdien inplikazioa. Ekintza Planaren lanketa egin zuen arkitektoak, arlo teknikoak landuz eta proiektuen aurrekontuak kalkulatz.
- Ekaina-Irila: F.A.ko teknikariek adostasun horren lanketa.
- Urria: Osoko Bilkuran parte hartze prozesua garatzeko adostasuna agertu zuen Udalbatza osoak aho batez.
- Urria-Azaroa hasiera: Talde Eragilea osatzeko harremanak




PARTE HARTZE PROZESUA

2016an EGIN DENA:

2. HERRITARREI ZUZENDUTAKO PROZESUA

AZAROA:

- 7an, Talde Eragilearen aurkezpen bilera
- 21ean Talde Eragilearen 1. tailerra



ABENDUA:

- 3an, HERRI JARDUNALDIA
- 14an, Talde Eragilearen 2. tailerra

PARTE HARTZE PROZESUA

2017an EGIN DENA

URTARRILA:



- Prozesuaren emaitzen dokumentazioa eta 2017rako lan proposamena idatzi (AZTIKER enpresak)



EREIN diru-laguntza deialdia aterazen, normalean maiatzean ateratzen dena, baina aurten aurreratu egin dutena, urtarrilak 31 izanik proiektuak aurkezteko epea. Puntuazio altua lortzeko helburuarekin, urtarrilaren 30ean, AURREKONTUAK eta ARTXANBERRIKO KULTURGUNE proiektua onartu ziren Osoko Bilkuran

OTSAILA:


- Talde Eragileak amaierako txostenari oniritzia eman
- Talde Eragileak udalbatzari ondorioak eta 2017rako plangintza azaldu



ATERA DIREN ONDORIO NAGUSIAK

Lehentasuna PLAZAREN ERABERRITZEARI eman zaio. Hiru esparru landu dira: estalpea, udal eraikina eta Elizarekiko harremana.

- **ERAIKINA:** Lehenesten da kokapena Kultur-etxe zaharraren espazioan. Bertan kokatu: Udal Bulegoak orokorrean (politikoak, teknikoak), Gizarte zerbitzuetarako bulegoa, 3. Adinekoentzat zerbitzuak eta zaintza egitasmoak, Erabilera anitzeko espazioa(k), jangela soziala adineko eta haurrentzat.
- **ESTALPEA:** eguneroko jarduerak burutzea jolasleku, atsedeen/egoteko gune giro txarrean. Estalpearen funtzio puntualagoak honakoak dira: festak eta ekitaldiak (herrirako). Bestelako ekimen oso puntualetarako dimentsio handiagoak behar badira momentuan erantzungo zaie behar horiei. Estalpearen kokapena plaza eraberritzeko proiektu osoaren baitan aztertu.
- **ELIZAKO SALOIAK:** Lehenesten da saloiak desagerraraztea (plazarako espazioa eta itxura hobetuz, dauden baldintzetan arriskua ere badagoelako). Argi geratzen da horko zein frontoiko edozein interbentzio erabat lotuta dagoela izendapen historikoari (Ondare Saila) eta Elizari.




TALDE ERAGILEAREN ESKAKIZUNAK UDALBATZARI

- **65 urtetik gorako herritarren azterketatxo bat egitea:** zenbat diren, bakarka edo familian bizi ote diren...
- **Haurren ikuspegia jasotzeko haiekin ere lan dinamikak** egitea gaiaren inguruan eskolaren bidez
- **Plazaren eraberritze integralaren** ideia. Zehaztuta utzi dira zein zerbitzu kokatu behar diren plazan.
- **Behin-behineko estalpe** baten aukera aztertzea.
- **Proiektu-lehiaketa** egitea, sortu diren zalantzei konponbideak bilatzeko.
- **Elizarekin harremanetan** jarraitu saloiak-estalpea aferan akordioa lortzeko
- **Herritarrekin kontrasterako saioak** egitea. Horretarako, Talde Eragilea prest dago lanean jarraitzeko.



2017RAKO PLANGINTZA



HIRIGINTZA

- Plan Orokorraren behin-betiko onarpena: ekainean
- Terrazetako ordenantza landu eta ezarri
- Mendi-Ondoko obra.....73.731,58€
Udalak: 36.042,16€, gainontzekoa bizilagunek eta F.A.
- Haurreskolako estalpea amaitu (2016ko aurrekontutik)
- Artxanberriko kulturgunea250.000€ (~)
- Plaza eraberritzeko lehiaketa100.000€ (~)
- Bilore: jarraipena egin gaiari
- Mantenimendu eta hobetze obra txikiak



UDAL-ALMAZEN BERRIA EZAGUTZEKO BISITA

Kale brigadako udal-langileek Artxanberri kaleko biltegi berria erakutsi ziguten. Hemen argazki batzuk:



ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK!



ZALDIBIAKO UDALA
Gipuzkoa

